

ANTOLATZAILEAK



Didazten



Aretxabaletako
Udala

www.aretxabaleta.eus
www.idazten.com

KARMELE IGARTUA



**XII. EDIZIOA
SORKUNTZA BEKA**

POESIA

OINARRIAK



PARTE HARTZAILEAK

16 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan.



LANAK

Poesia-liburua euskaraz idatzita egongo da. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Lanak originala izan behar du, argitaratu gabea eta euskaraz idatzia, ez da onartuko itzulpenik. Aurkezten den lanak gutxienez 500 lerro eta gehienez 800 arteko luzera izango du. Lerro arteko tarteak 1,5koa izango da.



GAIA

Gaia librea izango da.



AURKEZPENA

Lanak posta arruntez edo posta elektronikoz bidal daitezke.

Posta arruntez:

- ✦ Helbide honetara bidaliko dira: Otalora kalea 1, 20550 Aretxabaleta
- ✦ Udaletxean bertan ere aurkez daitezke, jendaurreko ordutegian.
- ✦ Lanak hirukoiztuta aurkeztuko dira, gutun-azal baten barruan. Gutun-azalaren kanpoko aldean, helbidearen gainean, hau adieraziko da: "Kultura: Karmele Igartua Sorkuntza Lehiaketa. 2022: Poesia". Ale bakoitzak izenburua izango du orrialde guztietan.
- ✦ Gutun-azal handiaren barruan derrigorrezkoa da beste gutun-azal itxi bat sartzea (plika). Gutunazal horren kanpoko aldean gidoiaren izenburua bakarrik jarriko da, eta barruan datu hauek:
 - Egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa, eta jarraian, curriculum laburra.
 - NAN edo pasaportearen fotokopia.
 - Aitorpen idatzia, non adieraziko baita aurkeztutako lana jatorrizkoa dela eta argitaratu edo estreinatu gabea, eta ez duela inongo lehiaketatan saririk jaso.
 - Halaber, egileak berariaz aitortuko du deialdiaren oinarriak ezagutu eta onartzen dituela.



Posta elektronikoz:

- ✦ Lanak kultura@aretxabaleta.eus helbidera bidaliko dira.
- ✦ Mezuaren gaia: "Kultura: Karmele Igartua Lehiaketa. 2022: Poesia"
- ✦ Lana PDF formatuan aurkeztuko da, eta PDFaren izena gidoiaren izenburua izango da.
- ✦ Beste artxibo batean, posta arrunterako eskatu diren datu berberak idatziko dira.
- ✦ Antolatzaileek idazlanak soilik bidaliko dizkiete epaileei, egileen anonimotasuna gordetzeko.



LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak bidaltzeko azken eguna: 2022ko azaroaren 30a.



HAUTAKETA-PROZESUA

Epaimahaia Bergarako Idazle Eskolak izendatuko du. Erakunde horretako kideen eta literatura munduko pertsonen artean aukeraturiko kideekin osatuko da. Jasotako lan guztiak aztertu ondoren, epaimahaiak irabazlea aukeratu du. Erabakia 2022ko abenduaren 31a baino lehen jakinaraziko da.



SARIAK

Irabazleak 2.500 euroko diru saria jasoko du. Kopuru horretatik, aplikagarriak diren zerga-arauak betez atxiki beharrekoa deskontatuko da. Saria eman gabe gera daiteke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.



JABETZA

Lan irabazlea Aretxabaletako Udalaren eta Bergarako Idazle Eskolaren jabetzan geratuko da urtebetez. Erakunde horiek epe horretan bakarrik erabili ahal izango dituzte egile-eskubideak, eta grabatzea edo zabaltzea erabakiz gero, egilearen izena aipatuko dute.



OHARRAK

Lehiaketa honetan parte-hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakia erabat onartzea dakar berarekin.